




HIRIAK SALGAI. IRUÑEKO ALDE ZAHARREAN BIZI

Hiriak salgai. Iruñeko Alde Zaharrean bizi



Iturria: AZ ekimenaren komikia



Egilea: Leire Zabaltza
C2rako proiektua

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	4
2.ARAZOAREN SORBURUA.	
HIRIEN SUNTSIKETA SORTZAILEA.....	5
2.1Soberakina hirien sorreran. Kapitalismoa.....	5
2.2Historiako adibideak.....	6
2.3Hiriaren gaineko eskubidea	10
3.IRUÑEA.TURISTIFIKAZIOAREN DATUAK.....	10
3.1 Turismoa eta tabernak.....	10
3.2 Unzuren afera.....	13
3.3 Suntsiketa sortzailea Iruñeko Alde Zaharrean.....	17
4. ALDE ZAHARREAN BIZI ELKARTEA. ERRESISTENTZIA.....	20
4.1 Egoeraren aurrekariak.....	20
4.2 Xedeak.....	21
4.3 Ekimen eta jarduerak.....	22
5. ONDORIOAK.....	24
6.BIBLIOGRAFIA.....	25

1. SARRERA

Txostenerako gai honek nire kezka eta azken bi urteotako ibilbidea du abiaburu. Aipa dezadan Iruñeko Alde Zaharreko bizilagun izaki, gure auzoa azken urteotan txarrerako jasaten ari zen aldaketaz jabetzen hasia nintzela: tabernak nonahi, bai zaharrak eta baita berriak ere; Alde Zaharra "beti jai" gune bilakatzen ari zen; besta zen asteroko bazka; oihuak, zikinkeria, bizilagunendako begirunerik ez. Gure betiko eta gureak ziren enparantzak tabernen terraza bilakaturik, aulkiek eta mahaiek harrapatzen zuten tokia. Egia esan, handik pasatzeko doi-doi ibiltzen ginen eta auzoko umeak jostaketan ezin aritu ziren. Denda mota berriak sortzen ari ziren eta auzoko betikoak desagertzen. Eta turistifikazioa hozkaka zetorren. Horren guztiaren aurrean udala entzungor egiten ari zen, nahiz eta esan behar den ez zirela haiek arazo haren sortzaile, lehenagoko legealdiko agintariak eta arauak baizik.

Eta zinez garrantzitsua da ulertzea zer gertatzen ari den egoki jokatzeko. Hori da Daniel Innerarity filosofoak dioena (bide batez esan dezadan Geroa Bai talde politikoaren aholkularia dela). Bada, nik ere antzeko zerbait pentsaturik, hiritar parte-hartzailea izan nahi nuen heinean, Alde Zaharrean jada sorturik zen *Alde Zaharrean Bizi* taldean sartzea erabaki nuen berari buruz entzundakoa gogoko nuelako baita bere jarduna ere. Gainera, hainbat ezagun nuen taldean.

Eta orain, arestian esandako guztiak berdin jarraitzen duela esaten badut, ez naiz egia esaten ari, orain amiñi bat makurrago baitago, joan den urtarilaren 10ean Iruñeko osoko bilkuran Unzu etxea zen tokian 277 plazako *hostel* edo ostatu bat eraikitzea baimendu baitute, lehenago zegoen hirigintzako araudian zuzenketa bat sarturik eta horren alde bozkaturik.

Horrela bada, ibilbide hau hartuko dut gaitako eta *Alde Zaharrean Bizi* taldea izanen da bidaide.

2.ARAZOAREN SORBURUA. HIRIEN SUNTSIKETA SORTZAILEA

Zenbait egilek diote —David Harveyk eta Daniel Sorandok—, hirigintza kapitalak sorturiko soberakinak irensteko modua dela. Hartara, hirien suntsiketa sortzailea gauzatu da eta horrek hiriko biztanleei hiriarekiko duten eskubidea galarazi die. Prozesu hori dela medio, hirien diseinua soberakin horrek agindu du eta ez tokian tokiko eta hiriko biztanleen gizarte-beharrak.

2.1 Soberakina hirien sorreran. Kapitalismoa

Betidanik ekoizpen soberakinen ondorioz sortu dira hiriak, beraz, hirigintza betidanik klase desberdintasunarekin egon da loturik, izatez, soberakina nonbaitetik sortzen baitzen, norbaitek lortzen baitzuen eta gutxi batzuek kudeatzen baitzuten. Eta egoera horrek, hain zuzen ere, indarrean jarraitzen du kapitalismoaren xede nagusia gainbalioa (zerbait erosi den prezioaren eta saldu den prezioaren arteko diferentziaren bitartez lortutako mozkina edo irabazia) lortzea delako, eta horretarako hirigintzan ekoizten du egin beharreko operazioetarako soberakina eta baita soberakina hirigintzan inbertitu ere. Ikusten denez, sorgin-gurpil bilakatu da auzia.

Afera ulertzeko argi eduki behar dugu kapitalismoak behar duela etxebizitzak eta etxabeak erostera prest dagoen jendea, duten balioa baino prezio garestiagoan. Dena den, egoki da zehaztaperen txiki bat egitea kapitalismo tradizionalaren eta modernoaren arteko ezberdintasuna ikusteko eta, hortaz, gaur egun gertatzen dena argi izatea. Behiaren metaforaren bidez azalduko dugu:

- Kapitalismo tradizionala: bi behi dituzu. Bat saldu eginen duzu zezen bat erosteko. Behi gehiago izanen dituzu horrela. Behiak saldutakoan, aberats jubilatuko zara.

- Kapitalismo modernoa = finantzarioa: behi bat erosi duzu, hamar zatitan banatu duzu eta hamaika saldu dituzu. Eta Estatuaren bonuak erosi dituzunez, hogeit hamar behi salduko dituzu.

Bitxia bada ere, prozesu osoan zehar inor ez da ohartuko zuk behi bat besterik ez duzula.

Azalpen horrek aditzera eman nahi duena da gaur egungo kapitalismo finantzarioak ez duela deus ere ekoizten baizik eta prezioak puztu, hots, burbuila bat sortu.

Ikus dezagun nola jokatzten duten kapitalistek: hasieran diru puska bat inbertitzen dute eta denboraren buruan kopuru hori baino gehiago lortzen dute, irabazia eskuratuz.

Horrela bada, irabaziarekin zer egin erabaki behar dute: diru gehiago eskuratzeko berriz inbertitu edo gustuko gauzetan xahutu. Baina lehia dela eta, inbertitzen duten beste kapitalista batzuek jokotik kanporatu edo baztertu ez ditzaten zati bat bederen inbertitzen dute berriz, irabazi handiagoa lortzeko. Eta era horretan irabazia era esponentzian hazten da.

Ikusten denez, kapitalismoaren politikak etengabe behar du ekoizpenerako eremua eta baita kapital soberakina xurgatuko dion eremua ere. Eta eremu horietako bat hirigintza da —gastu militarrekin batera—, hortik lortzen baitute soberakinak xurgatzea gainbalioa lortzeko.

2.2 Historiako adibideak

Hori dena azaltzeko historian dugu adibiderik argiena, II. Inperioan (1852-1870) Parisen gertaturikoa, hain zuzen ere. 1848ko¹ krisiak argi eta garbi bistaratu zuen kapital eta lan soberakinak ez erabiltzeak zer zekarren. Horren guztiaren eragina argi nabaritu zen Parisen eta han sortu zen langile langabetuek eta burges utopistek eragindako iraultza. Beren aldarria gizarte-errepublika bat zen, beti ere diru-gosearen eta ezberdintasunaren kontra jokatzeko. Aitzitik, burgesia errepublikanoak matxinatuak itoarazi zituen baina ez zuen krisia gainditzea lortu. Eta horren guztiaren ondorioz, Luis Napoleon Bonapartek hartu zuen agintea, 1851n estatu-kolpea emanik eta bere burua Napoleon III.a izendaturik. Hainbat konturen artean bazekien kapital soberakina nola xurgatu pentsatu beharra zegoela eta horretarako egituretan inbertsioak bulkatu zituen, bai Frantzian eta baita atzerrian ere. Europan trenbideak eraiki zituen Istanbuleraino eta Suezko ubidea egiten ere lagundu zuen. Frantzian, berriz, batez ere Parisko hirigintzaren eraldaketa burutu zuen. Lan hori egiteko Haussmann izendatu zuen arduradun.

¹1840ko hamarkadaren erdialdean krisi ekonomiko gogorra izan zen Europan. Krisi hura 1845–1846 bitartean jazotako patataren krisiarekin hasi zen: patataren uza txarrak gosea eta pobrezia zabaltu zituen. Horretaz gainera, 1847 inguruan lehortea handiak izan ziren.

Beste alde batetik, industrializazioa hasia zen Europa osoan eta, horrekin batera, klase-gizartearen eraketa. Burgesia eta langileen arteko ezberdintasunak gero eta handiagoak ziren, bai ekonomian, bai eskubide politikoetan, eta horrek proletarioek estatu burgesaren kontra egindako lehen protestak sorrarazi zituen.

Azken horrek ongi aski zekien jomuga kapital eta langile soberakinaren arazoa zela eta hori bideratzeko hirigintza erabili zuen. Parisek zuen Erdi Aroko egitura deuseztatu beharra zuten suntsiketa sortzailea erabiliz eta karrika meharrik botaz; horrela, bulebar eta plaza zabalak eraiki zituzten.

Zabalguneek enperadoreari tropak aise ibil zitezen laguntzen zioten eta herri xeheak izan zezakeen iraultzarako ahalmena urritu egin zuten. Hainbestez, Paris kontsumoaren, turismoaren eta plazeraren hiri bilakatu zen: kafe-dendak, saltoki handiak, moda sektorea eta erakusketa handiak sortu ziren, besteak beste. Hori bai, langileak bazter utzi zituen.

Baina finantza-sistema gero eta espekulatzailagoa bihurtzen ari zen eta azkenik 1868ko krisia zartarazi zuen. Haussmann kargugabetu egin zuten, Napoleon III.ak Bismarcken Alemaniaren aurkako guda galdu zuen eta, azkenik, Parisko Komuna sortu zen, hiri kapitalistaren historian iraultzarik garrantzitsuenetarikoa.

Beste antzeko adibide bat 1942ko AEBek (Ameriketako Estatu Batuek) eman diezagukete. Urte hartan Robert Mosesek *Architectural Forum* aldizkarian Haussmannek Parisen egindakoa aztertu zuen. Politikari hark Bigarren Mundu Gerraren ostean (1936-1945) New Yorken Haussmannek Parisen XIX. mendean egin zuenaren antzekoa burutu zuen eta kapitalaren soberakinak xurgatzeko autobide-sare itzela eraikiarazi zuen, eta herritar dirudunak kanpoaldeko urbanizazioetara bidali zituen. Horrek guztiak bizitza molde berria ekarri zuen: etxe txiki berdinez osaturiko lerroak, bina auto atarian... hori dena hiriguneak hustuta eta hiria ekonomia-oinarri iraunkorrik gabe utzita.

Esan dezagun Mosesen jauntxokeria eta larderia behin baino gehiagotan gelditu zela begi-bistan, auzokideen iritziak bazter uzten baitzituen beraiek gutxietsiz, klase-, etnia- eta genero-joerako politika aurrera eramanez. Egin zituen azpiegitura-lan itzelek askotan jende asko lekualdarazi zuten eta baita eraiste handiak eginarazi ere. Horren adibidetako Cross Brons Expressway autobide jaso.



Bide bera jarraikiz hainbat adibide ditugu suntsiketa sortzaile molde horretan AEBko zenbait hiritan: Bostonen, Filadelfian edo Detroiten.

Dena den, antzeko asmo bat aurrera atera nahian zebilenean hasi zen Mosesen gainbehera, hain zuzen ere, LOMEX delakoa (Lower Manhattan Expressway) Jane Jacobs ekintzailearen eta hirigintza-teorikoaren kritikak eta auzokideen mobilizazioak zirela-eta, bertan behera gelditu baitzen.

Aipatu beharra dago Haussmanekin ez bezala, Mosesekin jada kultur lan entzutetsuak hasi zirela eraikitzen, hala nola Lincoln Center delakoa.



Gaur egun, hirien itxuraldatzeari edo eraldatzeari beste izen bat ematen diote: gentrifikazioa (ingelesko gentrytik dator, hots, goi burgesiatik). Hainbat hirigilek aipatu nahi ez duten hitza da, tabu bihurtzerainokoa ia, baina hiriaren gaineko eskubidea aldarrikatzen dutenek gero eta maizago erabiltzen dutena. Kontua da hiriguneak aldatzeko oinarrian klase arrazoiak daudela eta era horretan hirien eraldatzea molde baketsuan eta liskarrik gabe egin delako irudia bertan behera gelditzen dela.

Gogora ekar dezagun 70eko hamarkadaren hasieran gerra ondorengo kapitalismoaren loraldia maldan behera hasi zela, ihartzen hasi baitzen. Ordura arte hazkunde ekonomikoa zela-eta, kapitalaren eta lanaren arteko hitzarmena ahalbidetu zen, nolabait, langileriaren bizi-baldintza duinak babestu ziren eta hiriek bi klaseen interesak uztartzen zituzten, hots, industria-elitearenak eta langileenak. Langileek etxebizitza, garraioa, giza-zerbitzuak, hezkuntza eta osasun-zerbitzuak ziurtaturik zituzten. Agintarien egitekoa ekoizpena ziurtatzea zen, eta hartarako, ekoizpenean aritzen ziren langileek lo egin behar zuten, osasuntsu egon, diziplina ikasi eta lantokietara joan. Eta horiek ziren 70eko hamarkadaren hasiera arte mendebaldeko hiriek betetzen zituzten eginkizunak.

Baina garai hartako krisi ekonomikoak delako hitzarmen hura hautsi egin zuen. Eliteek, beren irabaziak gutxitzen ari zirela ikusirik, aldaketa ekonomiko eta politiko berriak abiarazi zituzten beren buruaren mesedetan eta langileen

kaltetan. Hortaz, batetik, industria jardueraren irabaziak urritzen hasi ziren heinean, inbertsio askok beste kokagune berri bat izan zuten: higiezinaren espekulazioa.

Bestetik, ekoizpena urruti eraman zen, hain zuzen ere, lanerako indarra modu lausoan arautzen zuten tokietara. Hala bada, lanaren banaketa berria gertatu zen, eta haren arabera, agintea eta diseinua metropolietan gauzatzen zen eta ekoizpena, berriz, aitzinako kolonietan barna sakabanatu zen. Deslokalizazioa hasia zen jada. Prozesu hari esker, industria-eliteek bi helburu lortu zituzten:

1. Ekoizpen gastuak gutxitzea eta prezio lehiakorragoak lortzea.
2. Sindikatuen indarra murriztea deslokalizazioaren mamua astinduz.

Horren adibide garbia dugu Margaret Thatcherrek Britainia Handiko langileriaren kontra egindako kanpaina, han bizitegi publikoak pribatu bihurtu baitzituen eta sindikatuen aurka gogor jardun baitzuen. Horren antzera jokatu zuten Txilen Pinochetek eta baita AEBetan Reaganek ere.

Laburbilduz, langileriak lana eta babes baldintzak galdu egin zituen.

Hori dela eta, harrezkero behin-behineko lanetan aritu behar dute eta hiri-komunitate asko erraustu egin dira: langileek lana galdu dute eta beren bizi-baldintzak pribatizatu egin dira.

Dena den, zenbait tokitan gehiago nozitu da hori, hain zuzen ere, langileriaren bizitegiak pribatizatzearekin batera auzoaren balioa handitu den lekuetan, hots, lan eza eta kontsumo globala elkartu diren tokietan. Hiriguneetan errotu da sakonki neoliberalismoa.

Agerian gelditu denez, hirietako bizitza ere salerosgai bihurtu da dirudunendako; izan ere, kontsumismoa, turismoa, kultur ekintzak eta ikuskizunak lehentasunezko kontu bihurtu dira hirien ekonomia politikoan. Esan nahi baita dendak, saltokiak, artisau-azokak, kafetegitxoak aurki ditzakegula nonahi.

Azken batean, aipaturiko adibideek agerian uzten dute hasieran esan duguna: hirien suntsiketa sortzailea gauzatu da kapitalaren soberakinak irensteko eta horrek hiriko biztanleei hiriarekiko duten eskubidea galarazi die.

2.3 Hiriaren gaineko eskubidea

Giza eskubideak denen ahotan dabilta gaur egun bai politikan eta baita etika alorrean ere, baina beti ere norbanakoarenak direla ulertu da eta ez da kordoka jartzen merkatu liberalaren moldeak. Horrela bada, beste eskubide mota bat badela ekarriko dugu gogora, talde-eskubide bat, hiriaren gaineko eskubidea, hain zuzen ere. Hiria sortzerakoan gizakiak bere burua birsortu du hor, nolabait esateko. Beraz, zer nolako hiria nahi dugun, nolako giza harremanak nahi ditugun eta naturarekin izan nahi dugun harremana hertsiki loturik dago sortu/-ko dugun hiri ereduarekin.

Eta honenbestez, zenbait galdera datozkigu burura: sortu den hirigintza ikaragarriak gizakiari ongizaterik ekarri al dio? Pertsona hobeak bihurtu gaitu edo araurik gabeko mundu alienatu batean utzi gaitu?

Nori dagokio hiria zaintzea, finantzariei, higiezinaren sustatzaileei edo herritarroei?

Nola berrantola daitezke hiriak modu bidezkoagoan? Nola egin osasuntsuago ekologia babestuz? Nola bihurtu erresistentziaren erdigune?

3. IRUÑEA. TURISTIFIKAZIOAREN DATUAK

3.1 Turismoa eta tabernak

Arestian esan dugu hirietako bizitza ere salerosgai bihurtu dela dirudunendako eta horrela kontsumismoa, turismoa, kultur ekintzak eta ikuskizunak lehentasunezko kontu bihurtu direla hirien ekonomia politikoan, gizarte-, kultura- eta ekonomia-harrapaketa bihurtzeraino, ia.

Aipa dezagun Estatu Espainola Frantzia eta AEBekin lehian ari dela munduko turista kopururik handiena nork hartuko. Zehazki, estatuak 82 milioi turista izan zituen 2018an.

Eta horrenbestez, Iruñean ere gero eta hedatuago den fenomenoak da turismo jendetsua. Eta datuak zorrotzak dira:

Batetik, Udalak 2017an etxebizitza eta ostatu turistikoei buruzko ikerketa egin zuen Meridiano Zero aholkularitzaren eskutik. Urte berean, eta hura ere Udalak agindurik, *Efecto Airbnb Iruñea* ikerketa egin zuen Montera³⁴ enpresak. 2017an Nafarroako Gobernuak ere egin zituen ikerketak. Datuak pilatzen ari dira, beraz,

eta batzuk oso kezagarriak dira, ez Iruñea osoarentzat, baina bai Alde Zahararentzat. Honatx batzuk:

- ⇒ Lo egiteko plaza horietatik guztietatik %42 Iruñeko Alde Zaharreon da, %15 Zabalgunean eta beste %43 gainerako auzoen artean banatzen da.
- ⇒ Alde Zaharreon 1.000 biztanleko 165,6 plaza turistiko daude eta bigarren auzoa Ermitagaña-Mendebaldea da, 90,8 plaza 1.000 biztanleko; Txantrean, adibidez, 1.000 biztanleko 6,9 plaza daude eta Donibanen 0,6.


Alde Zaharreon plaza turistiko bat dago 5,4 biztanleko, eta Iruñean plaza bat 38 biztanleko; esan nahi baita Alde Zaharrak jasaten duen presioa zazpi aldiz handiagoa dela.

Bestetik, taberna, kafetegi eta ostatuak direla eta, esan behar da Iruñeko hiriguneak araututako mailen barnean 222 establezimendu dituela (59k dute taberna baimena, 46k taberna berezi baimena; 44k taberna-jatetxe baimena eta abar). Kopuru hori Iruñean dauden 1.071 lokalen %20,7 da.

Azkenik, aipa dezagun tabernetako terrazaren arazoa. Horiek Iruñean oro har %60 igan dira bost urtetan. Gaur egun, Iruñean dauden kupel edo mahai altuak osotara 679 dira, eta 98 daude kokaturik Alde Zaharreon.

(Ikus hurrengo orrialdean *Argia* astekarian argitaraturiko diagramak).


IRUÑEKO ALDE ZAHARREAN NOLA GOGORTU DIREN BIZI BALDINTZAK



Oharra: Iruñeko Alde Zaharra eta hiriaren datu orokorren arteko konparaketa da, argi ikusten dira bi-hiru gauza: Alde Zaharrean biztanleriak Iruñean baino bizi baldintza gogorragoak ditu eta, ondorioz, beste auzo batzuetara alde egiten du. Bereziki gazteak eta etorkinak dira kolpatuenak, ume gehien izaten dituzten sektoreak, alokairuan gehien bizi direnak eta ekonomikoki ahulenak.

Iturria: Iruñeko Udalaren Soziologia Departamentua.

OSTATU TOKIAK IRUÑEAN



Iturria: "Efecto Airbnb Pamplona-Iruñea" ikerketa, Montera34.

3.2 Unzuren afera

Historia

Unzu denda 1838an jaio zen Iruñean, Mercaderes karrikan, garai hartako saltokien modernitatearen adierazle. Hasieran ehun-saltokia bazen ere, poliki-poliki handituz joan zen eta ehunak saltzen zituen etxea izatetik bestelakoak ere saltzen zituen saletxe izatera pasatu zen. Horrela, ondoko eraikinetara zabaldu zen. XX. mendeko 50eko hamarkadaren bukaeran eraikin berria egin zuten Burgoen enparantzan eta esan daiteke garai hartako Iruñeko merkataritzaren eragilerik behinena bihurtu zela. Baina 2005ean Corte Inglés saltoki handia iritsi zen gurera eta harekin lehian aritzea ezinezko suertatu zitzaionez, 2007ko maiatzaren 26an itxi zuten, ia 170 urtez bizi ondoren.



Unzu zaharra Mercaderes karrikan




Atzeko aldea. Burgoen plazan

Hamar urte igaro ondoren, 2017an, hain zuzen ere, Iruñeko Hirigintza Sailean Unzu etxeko Mercaderes karrikako aldean, batetik, luxuzko 10 etxebizitza egiteko eta bestetik, 227 plazako turistendako aterpea egiteko lizentzia eskaera jaso zen. RGA Sren sustatzaileak *Vive Unzu* proiektua burutu nahi zuen baina hiriko araudiak ez zuen hori baimentzen. Horrenbestez, sustatzaileek prentsa-ohar baten bidez esan zuten "hiriko araudian dauden oztopoak agudo desagertzeko itxaropena dugu, horrela gure proiektua gauza dadin".

Hirigintzako araudia

2018an, halaber, batetik Iruñeko Plan Orokorra eta, bestetik, Alde Zaharra babesteko eta eraberritzeko plan berezia (PEPRI, gaztelaniazko sigletan) aztertzen aritu zen Udal Gobernuak. Prozesu bat zabaldu zuen Udalak, besteak beste, bizilagunekin eta ostatu sektorearekin hitz egiteko.

2018ko azaro arte (Geroa Baik araudian zuzenketa sartu arte), ostatu eraikin berri bat eraikitzeko gutxieneko distantzia bat izan behar zen jadanik baziren beste hotelekiko. Distantzia kalkulatzeko modua honakoa zen: hotel edo ostatuaren aurrealde nagusiaren altuera bider sei metro. Hau da, 7 metroko etxe-aurrea duen eraikin batek, adibidez, ezin izanen zuen beste ostatu eraikinik izan 42 metro baino hurbilago. Horrela bada, distantzia neurri horiek onartu izan balira, ez zatekeen Unzuren proiektu hori aurrera aterako, Udal plazan Pompaelo Hotela dagoelako eta La Perla Hotela Txapitela karrikaren eta Gazteluko Plazaren arteko izkinan.



Auzokideen batzarra

2018ko apirilaren 13an auzokideek batzarra egin zuten Plazara gunean, Alde Zaharreko Kale Nagusian aurreko urtean zabaldu zen auzo-etxean. Udal ordezkariekin bilera zuten ondorengo egunetan eta zein jarrera eraman erabaki behar zuten. 75 bat herritar bildu ziren batzarrean, haien artean hainbat elkartetako ordezkariak. Gaia sakon eztabaidatu ondoren, bizilagunek Udalari arauetan egingen ziren aldaketetan, Alde Zaharra ostatu turistikoaren eremu gainezkatutzat jotzea eskatuko zioten. Eta horrek Unzu turistendako aterpe izateko proiektuaren kontrako jarrera adierazten zuen. Honako arrazoiengatik batik bat:

- Auzoaren egoera arrunt kezkarria. 2006an UPNk lizentziak eskuratzeko murrizpena altxatu zuenetik, ostalaritzaren nagusigoa hasi zen, Alde Zaharrean tabernak nonahi ireki baitzitezkeen.
- Auzoko biztanleria % 10,9 jaitsi da, hirikoak, berriz, % 3,9 egin du gora. Eta turistendako gero eta pisu gehiago egoteagatik auzokide askok joan behar izan du auzotik.
- Alde Zaharra bestaren sorgin-gurpil bihurtu da. Eta egoera horrek auzokideen bizitzan arazo larriak sorrarazi ditu.
- Auzoan alokairuen prezioa ikaragarri igaten ari da. Horrenbestez, gazteendako eta talde ahulenendako etxebizitza bertan lortzea eskuraezin bihurtzen ari da.
- Azken urtean gureak bost urtetik beherako haurren % 10,1 galdu du (407tik 366ra); gainerako auzoetan, ordea, % 1,7 jaitsi da.

2019ko osoko bilkura

Urtarrilaren 10ean udalbatzaren osoko bilkuran, Geroa Baik sartu zuen hirigintzako araudian zuzenketa onartu zen UPNren (Unión del Pueblo Navarroren) aldeko botoek lagundurik. Modu horretan, Unzu hostela erakitzeko bozketan baiezkoa atera zen. Hasieran hotelendako finkaturiko gutxieneko

distantzia deuseztatu egin zen eta oraingo araudiak arautzen du hotelek etxadien %25 harrapatzen ahal dutela.

Proiektu horren arabera, Iruñeko hirugarren hotelik handiena eraikiko da bertan –Iruña Park eta Tres Reyes hotelak dira lehenak–, 277 ohe, luxuzko hamar apartamentu eta erlaxatze gunea izanen ditu (bere neurriez jabetzeko: Bilboko aterperik handienak 142 ohatze ditu —Unzuk baino 135 plaza gutxiago— eta hiriko kanpoaldean dago kokaturik).

Proposamen berri horren arabera, hotelek etxadien %25 har dezaketenez, gaur egun duten erabileraz landa (etxadietan komertzioa, tabernak, jatetxeak, kafetegiak, turistendako pisuak, ostatuak egon daitezke...), gure auzoko 80 eraikin izan litezke bere osotasunean behin-behineko bizileku, hots, hotel, ostatu, aterpe, turistendako apartamentu... Ikusten denez kopurua ikaragarria izatera irits liteke.



Unzu aterpea nolakoa izanen den.

3.3.Suntsiketa sortzailea Iruñeko Alde Zaharrean

Gure lanaren hasieran esan dugu zenbait egilek esaten dutela kapitalaren soberakinak irensteko hirien suntsiketa sortzailea gertatu dela, edo beste modu batera esanda, hiriak suntsitzen ari direla eta berriz beste molde batera sortzen ari direla. Hori da, hain zuzen ere, Iruñeko Alde Zaharrean agerian gelditzen ari dena.

Oroitarazi dezagun gaur egun Alde Zaharrean gertatzen eta bultzatzen ari den hiri ereduaren diseinua UPNren garaian egin zela, hots, eredu neoliberalak bulkatzen duen talde politiko baten garaian eta orain arte eredu hori ez dela eten.

Horrelako hiri eredu bati eutsi nahi dioten administrazioek zein sustatzaile pribatuek hirien berritzea edo sortzea dute helburu eta molde horrek *biziberritu* nahi duen hirigune hori nolabaiteko ghattotzat dauka. Hori abiapuntu izanik, hiru

oinarri ezartzen ditu hirigunea biziberritzeko: klasearteko nahasketa, kultura eta gizalegea.

Hasteko, klasearteko nahasketa dela eta, talderik txiroenak metropoli-barruti guztian barna sakabanatzen ditu, modu horretan eredu normalizatuekin nahasirik beraien jokabide kaltegarriak alde batera utziko dituztelakoan.

Horren adibide izan daiteke Alde Zaharrean bizi ziren ijito familia askorekin egindakoa, Descalzos karrikako ijito asko Arrotxapeako etxebizitzetara lekualdatu baitzituzten. Halaber, gaur egungo alokairu altuek beharturik, etorkin askok eta klase baxuko familia frankok alde egin behar izan du Alde Zaharretik.

Orobat, esan dezagun urteetan euskal giroko jendea ibili izan dela Alde Zaharrean eta badirudike hori ere noizbait jomuga izan duela pentsamolde horrek. Horrenbestez, ez dezagun atzendu horrelako ereduak beti tokiaren itxuraldatzea eta baita gizarte-egituraren aldaketa ere izan dutela jomuga.

Bigarrenik, kultura aukera paregabeko jotzen da, baita hiriguneen bizi-kalitatea hobetzeko eratzat ere. Horren adierazle ugari egon daitezke bai Guggenheim museoaren kasuan, Bilbon, eta baita Parisen, Pompidou zentroaren kasuan ere. Iruñeko Alde Zaharrean horren antzeko zerbait, modu xumeagoan bada ere, Zentral kafe-antzokia dela esan dezakegu. Zentral Santo Domingo azokaren barnean dago (bidenabar, esan dezagun eraiki behar duten Unzu hotelaren parean dagoela, Unzuren Burgoen plazako etxe-aurrearen parean) eta 2014an ireki zuten Alde Zaharreko kultura-gune esanguratsua izateko asmoz. Sustatzaileen hitzak ekarriko ditugu gogora, izan ere *Last Tour Internacional* enpresaren ustez "areto honek ostalaritzako negozio berriak erakar ditzake hona, tabernarik ez duen inguru honetara" (honenbestez, ohartu izanen zarete negozio batek arestian aipatutako besteari emanen diola bazka, edo lehen egindakoak orain eraikiko dutenari).

Aipatzekoa da *Last Tour Internacional* enpresak kontzertuak antolatzen dituela eta 1.200 lagunendako gunea izan dadin diseinatu duela antzokia. Zentralek bi pisu ditu, bata kontzertuak eta antzerki saioak emateko erabiltzen dena baina baita egitarau pribatuak emateko ere; eta bestea gaineko pisua, kafetegia dena. Bertan bazkariak eta afariak ematen dira eta ixteko ordua 03:30ean da,

astelehenetik ortziratera eta 04:00etan larunbat eta jaiegunetan. Dantzalekutzarra hirigunearen bihotzean. Aretoa sustatzeko arduradunak esan zuen "Zentralek inguru hau biziberritu dezake".



Zentral kafe-antzokia obretan. Aurrean Burgoen plaza, eskailerak igota.

Ikusi dugunez, egiteko moldea behin eta berriz errepikatzen da. Kultur guneak eratzea ezinbestekotzat jotzen dute

tokia ekonomikoki suspertuko bada. Xede hori lortzeko kontsumoa nabarmen garatzen da (arteak, janaria, musika, moda, etxebizitza eta aisialdia). Areago, horrelako hiri moldeak auzokide berriak eta bisitariak erakartzen ditu eta, hartara, klasearteko nahasketa, mugimendua eta auzoaren *susperraldia* burutzen da. Hitz batean esateko, turistek eta *klase sortzaileek* gauzatzen dute prozesua.

Azkenik, gizalegea beharrezkotzat jotzen da hiriaren garapena lortzeko.

Hiru hitzetan esateko, nahasketa, kultura eta gizalegea lirateke hirigileen eta agintarien ametsik maiteenak. Eta horixe bera da gaur egungo hirietako politika nagusia, hots, hiriak inbertsioa, turismoa eta dibisak erakartzeko moldea aurrera eramatea.

Harveyk dio hiru ezaugarri dituela hiriak zuzentzeko molde honek:

1. Sektore publiko eta pribatuaren arteko elkarlana: adibidez Unzu hotela baimentzeko araudia aldatu egin da udalbatzaren aldeko botoei esker.
2. Lankidetzak espekulazio operazioak ditu bere baitan, eta udalerriko gobernuak arriskuak hartzen ditu bere gain.
3. Zenbait hedabidek sakonki eta luzaz azaldu eta jarraitzen dituzte hiriaren plangintzarako egiten diren proiektu partzialak. Modu horretan tokiak edo eskualdeak dituen arazoak bazter uzten dituzte.

Beste modu batera esanik, Iruñeko Alde Zaharrea ere munduko hainbat hirigunetan orokortzen ari den gentrifikazioaren zantzuak antzeman daitezke, kontuan izanik hiriguneen truke-balioa manipulatu egiten dela: lehenik, Alde Zaharrea nolabaiteko laidoztatzea gertatu da (klase baxuko jendea, droga, ijitoak, euskal giroa dago bertan); ondoren *berritze* prozesua gertatu da (etxebizitza berriak eraikitzen dira, garestiagoak, ondoko etxebizitzaren alokairuen garestitzea eragiten du horrek... Horren adibide izan daitezke Ciudadela karrikan etxe oso bat eraitsi ondoren eraikitzen ari diren etxebizitza garestiak edota Errekoleta enparantzako Kapilauen Etxearen zaharberritzea. Azken horretan sustatzailearen eskariaren ondorioz, Alde Zaharreko PEPRIn aldaketaren bat sartu zuten etxebizitza babestuen gutxieneko estandarra kentzeko); eta azkenik, merkantilizazioa.

Horrela bada, gentrifikazioak bere baitan bost aldi edo aro dituela ikusi dugu: bazter uztea, estigma, berritzea, merkantilizazioa eta erresistentzia.

4. ALDE ZAHARREAN BIZI ELKARTEA. ERRESISTENTZIA

4.1 Egoeraren aurrekariak

2006. urtean Iruñeko Udalak ordura arte Alde Zaharreko bizilagunak babesten zituen araudia, ostalaritzaren eremu asean edo gainezkatua finkatzen zuena, aldatzea erabaki zuen. Horretarako PEPRI deritzana aldatu egin zuten kafetegi, jatetxe edo hotelen mesedetan. Era berean 2011ko urtarrilean tabakoaren kontrako legea jarri zen indarrean eta horren eraginez, besteak beste, taberna askoren jardura karrikara atera zen.

Ordutik aurrera ostalaritzako negozio berrien hedapena etengabea izan da, Udalak emandako datuen arabera, 2015eko otsaila bitarte 74 lizentzia onartu dira, horietatik 41 lokal berriak dira eta 33 aurretik jada bazirenen eraberritzeak.

Hori horrela izanik, aipatzekoa da negozio horien neurriz gaineko kopuruak arazo larriak sortu dituela eta sortzen jarraitzen duela, esaterako, musikaren bolumena neurriz kanpoko izatea, era guztietako zaratak sortzea, karrikaren okupazioa, zaborra eta abar. Horrenbestez, auzokide askoren bizi-baldintzak nabarmenki

hondatu dituzte azken urte hauetan, eta auzokide horietako batzuek beste auzo batzuetara joan behar izan dute bizitzera.

Egoera horren aurrean, urteetan hamaika erakunderen aurrean (Osasunbidea, Garapen Jasangarria, Iruñerriko Mankomunitatea, Udaltzaingoa, Hirigintza saila, Segurtasun saila, Herri Defendatzailearen aurrean...) banakako salaketak egin arren, ez zen deus lortu eta azkenean taldea sortzea erabaki zen. Horrela bada, 2014ko irailean sortu zen *Alde Zaharrean Bizi* elkarte.

Elkartea Iruñeko Alde Zaharreko eremu jakin batzuetako auzokideen bizi-baldintzak narriatu zirelako eratu zen; batez ere honakoengatik:

- gehiegizko zaratarengatik.
- merkataritza jarduerarekin zerikusia duten hainbat talde espazio publikoa hartzen ari zirelako.
- bizitegi-auzo batentzat ezinbestekoak diren ingurumen-egoerari zein osasungarritasunari egindako kaltearengatik.

Elkartearen web orrian agertzen den aurkezpeneko atal batek dioen bezala, “elkarbizitza beharrezkoa delako — batzuk harrabotsaren aurrean iraun besterik ez dugu egiten—, hiriko gainerako auzoak bezalakoak izan nahi dugulako, gure eskubideen alde egin nahi dugulako, bizitza duina izatearen alde, atsedeen hartzearen alde. Horregatik, hain zuzen ere, geure ikuspuntua eman nahi dugu, irtenbideak bilatu eta eskaini, elkarri laguntza eman... hori dena adierazpen askatasuna oinarri harturik”.

4.2 Xedeak

Hori horrela izanik, elkarteak xede nagusiak zehaztu zituen:

1. Iruñeko Alde Zaharreko bizilagunen atsedeen-eskubidea zein askatasun-eta intimitate-eskubidea babestea. Etxebizitzetara sartzeko eskubidea ere aldarrikatzea. Horretarako beharrezko ekimenak (araudiak barne), eta legezko ekintzak aurrera eramatea.
2. Hiriko Alde Zaharreko bizilagunen eta merkataritza arloaren arteko bizikidetza lortzen lagun dezaketen ekimen eta jarduerak aztertu, bulkatu eta

gauzatzea, baita auzoaren bizitegi-funtzioa defendatu, eta, merkataritza jarduerak direla-eta, espazio publikoaren gehiegizko erabilpena salatzea ere.

3. Aisialdiko jarduerak sustatzea, banakakoarendako on direnak eta gizataldeari nolabaiteko ekarpena egiten diotenak, merkataritza-proposamenak bazter utzirik, baita Alde Zaharraren eredu berria lortzen laguntzen duten neurriak bultzatzea ere, hots, kalitatezko bizimodu jasangarrirako irizpideak oinarritzat hartzen dituen eredu berria eta ingurumena errespetatzen duena.

4. Agintari eskudunei arauak betearazteko eskatzea, bereziki honako hauek: bizikidetza, ikuskizun publikoak zein aisialdiko jarduerak eta espazio publikoaren erabilera arautzen dituztenak.

5. Auzoko beste talde batzuekin (bertakoekin nahiz beste toki eta lurralde batzuetakoekin) harremana sustatzea, bizipenak trukatzeko eta ekimen komunak antolatzeke.

4.3 Ekimen eta Jarduerak

Hasi ginenetik abian jarri ditugun jarduerak:

- ☞ Egoera jasan behar duten auzokideei entzun eta lagundu (zenbait ostalariren legez kanpoko lanak eta asteburuetako jokabide basak direla eta, antsietate eta loaren arazoak pairatzen baitituzte...).
- ☞ Gaia ezagutarazteko asmoz, hedabideeta(ra)ko zutabe, artikulu eta elkarrizketak egin eta zabaldu.
- ☞ Irrati (Euskadi Irratia, Euskalerria Irratia, Onda Cero, SER...) eta telebistetan (EITB, Navarra Tv, TVE) agertu.
- ☞ Auzokideen artean sinadurak biltzeko kanpainak honakoa eskatzeko:
 - Udalari ostalaritzako baimen gehiagorik eman ez dezan eta araudia alda dezan.
 - Emanik dauden baimen guztiak berriz aztertu ditzala.
 - Terrazek hartzen duten lekua zehatz muga dadila eta araudia betearazi.
 - Nafarroako Gobernuari galdera egin EBen (Europar Batasunean) ingurune-zarata dela-eta legea nola ezartzen den jakiteko.

- 🌀 Europar Batasunera bigarren galdera, eta dagokion dokumentazioa bidali.
- 🌀 Iruñeko Udalean diren alderdi politiko guztiekin (2015eko hauteskunderen aurretik hasitakoak) eta gainerako hainbat eragilerekin bilerak egin egoeraren berri emateko.
- 🌀 Gonbitea egin digutenean, Alde Zaharreko Mahaiaren bileretan parte hartu.
- 🌀 Udaleko mozioa idatzi.
- 🌀 Udalak berak araudia urratzeagatik salaketak egin.
- 🌀 PEPRI delakoan zati batzuen helegiteak Nafarroako administrazio auzitegira eramanez.
- 🌀 Udalbatzetan idatziak irakurri.
- 🌀 Sentsibilizazio-kanpainak abiarazi.
- 🌀 Bilkura isilak egin.
- 🌀 Elkarretaratze eta batzar irekiak karrikan (aurten hilabeteko lehenbiziko astearteetan).
- 🌀 Jardunaldiak antolatu, esate baterako, "Alde Zaharra salgai, auzokideak espekulazioaren aurka", 2017an Katakraken egindakoa.

5. ONDORIOAK

Ikusi dugunez, hiriak (bere osotasunean) eta etxebizitzak merkataritzarako ondasun bihurtu dira. Hortaz, bizilagunen beharrak bazter utzi dira eta hiriak inbertitzaile eta espekulatzailen nahietara makurtu dira. Familiak, auzoak... dena jarri da kontsumoaren, turismoaren eta espekulazioaren zerbitzura, eta, horren ondorioz, alokairuak garestitu egin dira, dendak aldatu eta auzoak kontsumorako gai bihurtu dira. Espekulazio hori gauzatu eta burutu dutenak enpresa handiak eta nazioarteko funtsak izan dira.

Eta gure Iruñeko Alde Zaharra ere kapitalaren mamutzar horren atzaparretan erori da, edo hobeki esan, mamutzar horren altzora eraman dute. Eta bitartean, putzu beltzean murgildurik, Alde Zaharreko bizilagunak. Ostalaritzakoak, berriz, loriaturik, Yolanda Barcinaren —UPNko Iruñeko alkate eta Nafarroako lehendakari izandakoaren— ametsa egia bihurturik Alde Zaharra merkataritza-galeria eta dantzaleku bihurtu baita. Baina afera honetan mingarriena izan da Iruñeko talde “progresistek” edo aurrerakoiek eraman dutela aurrera. Batzuk oraindik loak harturik daudelako, beste batzuek ez dutelako ikusi nahi. Txiki batek ikusi du, baina hori zanpatu egin dute aurrekontuak onartu ez dituelako.

Denek diote arazoa konpontzea zaila dela. Baina hori lortzeko saiatu egin behar da: modu ideologikoan, zerga-sistemaren bidez eta modu politikoan.

Gakoak etxebizitza sozialak egitea, maizterrak babestea, komunitatearendako hiri-plangintza diseinatzea eta hiri baten xarma deszentralizatzea izan daitezke.

Argi dago Udalek mundu-mailako kapitalismoaren aurka hiriak babesteko arauak ezar ditzaketela, hiritarrik gabeko hiririk nekez irudika baitaiteke. Ez dezagun ahantz *auzo*² *bako*³ *aria*⁴ *sagu askoren habia* dela. Edo Aristotelesekin bere *Politikan* esan zuen moduan, “hiritarrek egiten dute hiria eta ez eraikinek”. Eta guk diogu” hiritarrek egiten dute hiria, ez eraikinek ez eta kapitalak ere”.

² Auzo: jende

³ Bako: bizk. gabeko

⁴ Aria: etxe

6.BIBLIOGRAFIA

- ALDE ZAHARREAN BIZI/ CONVIVIR EN LO VIEJOren webgunea:<http://www.convivirenloviejo.com>
- AZ Ekimenaren komikia (turismo-ostatuen aferak auzoan duen eragina agerian uzteko kaleratutakoa).
- HARVEY, David: *Ciudades Rebeldes. Del derecho de la ciudad a la revolución urbana*, Akal, Madrid, 2013.
- LETONA, Xabier: *Iruñeko Alde Zaharra, turismo masiboaren atzaparretateik ihesi*. 2599.
<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2599/iruneko-alde-zaharra-turismo-masiboaren-atzaparretatik-ihesi>
- SORANDO, Daniel y ARDURA, Alvaro: *First we take Manhattan. La destrucción creativa de las ciudades*, Catarata, Madrid 2016.
- Hainbat artikulu, bereziki ALDE ZAHARREAN BIZI webgunean argitaraturikoak.
- Hemeroteka
- Wikipedia

PENTSA DEZAGUN
ORAIN NON ETA NOLA
BIZI NAHI DUGUN:



Eredugarria al da auzo eredu hau?

ETA ZER
BA EZ?

UNZU HOSTELA AZKENALDIAN SUSTATUTAKO
PROZESU LUZE BATEN ONDORIOA DA.
MASIFIKAZIOA, ESPAZIOAREN PRIVATIZAZIOA
ETA NEGOZIANTEEKIKO BABESA EZAGUTU
DITUGU AUZOKIDEEN KALTERAKO.



BALITEKE,
BAINA...



AUZOAN BIDERKATU DIREN
PISU TURISTIKOEK ALOKAIJEN
PREZIOAK IGO ETA BERTAN
BIZI DEN DENDE ASKO AUZOTIK
BIDALI DITUZTE.

TTANTTAKA,
ZARATARIK
EGIN GABE.

HAINBES-
TERAKO?



2006AN OSTALARITZAREN FESTA HASI ZEN, EDONORK ESKURA ZEZAKEEN LIZENTZIA BAT. GEROZTIK,
ALDE ZAHARREKO POPULAZIOAK ALDAKETA IKARAGARRIAK EZAGUTU DITU, IRUÑEKOAREKIN ALDERATUTA.



NON GOGORTU
DIRA BIZI
BALDINTZAK?

